

E O S K A R A

## EUSKARA, EUSKALDUNON HIZKUNTZA

Ingmriitako gertaera batzu aztertzen

Aspaldidanik, sail honetan zerbaitxo bat herriko arazo bizietatik kanpo ibili naizela edo oraingoan herriko eguneroko bizitzara hurreratu nahi dut. Sortu ere hortik sortzen zaizkigu arazorik bizienak, hots, gure euskararen bizitza gehien baldintzitzen dutenak.

Dударик gabe, gaurko euskaldunok, gure hizkuntzaren historia barneko une garrantzitsu batean bizi gara. Euskara, behar bada, urte luze ilunetan menperaturik sokoratua egon ondoren, ilunpetatik buru ateratzen hasia dugu. Itxuraz, ba, egoera berri baten atarian aurkitzen gara. Azken urteotan, euskara, inoiz ez bezalako bultzada hartuz ari dela esan behar!

Denok dakigunez, aipaturiko azken urteotan, azalez behintzat, lege alorretan, Elebitasunerako dekretorangandik hasi eta zenbait urrats eman da. Zer esanik ez, garrantzi handia du euskararen bizitza nolabait baldintzitzen zuten legezko oztopoak kentze horrek. Hala ere, badugu oraindik bazterretan zer konpondu!

Hori dela eta, gaurko euskaldunok inguruetan zer ari den

jazotzen ikusi eta gero nola jokatu ikasi beharra dugu. Lagun-  
garri izan ditzazuela, gaur hemen aipatzen ditudan gertaerak  
gogo-ausnarketa hori egiterakoan.

Besterik gabe, ba, hasi gaitezen kontu-kontari:

Irafiea, 1980

Azken aldi hauetan pil-pil ari zaigu Nafarroa! Une histo-  
riko honetan garrantzi handia hartu du Eskualde horrek eus-  
kaldunon bizitzan. Zenbaiten eritziz bertan jokatuko omen da  
Euskal Herriaren etorkizuna! Hango Lurraldeetako gertakizu-  
nek oihartzun bizia izan ohi dute, gehienetan, Euskal Herrian  
zehar.

Oraingo hau oraintsu Irufiean, agiriko auzi batetan, gerta-  
tutakoa duzu. Azkenean egina izan baita, aspaldidanik egiteko  
zen *Euskal Herrian Euskaraz* taldeko nafartar zenbaiten aur-  
kako auzi nagusia.

Arazoa aspaldi sortua zen. Uda aurrean, talde horretako  
hainbat partaidek egindako ekintza bat zela eta izan zen aipa-  
turiko auzi hori. Hain zuzen, talde horretako batzu, euskara-  
ren ofizialkidetasuna eskatu nahirik, beharrezko baimenik gabe,  
Nafarroako Foru Aldundiko etxean gau-pasa egin zutelako edo.

Egun hartan, Kultur Saileko arduradun nagusi den Malon  
diputatu 3 ana bere bulegoan inguratu, bahitu eta iraindu edo  
halako zerbait egin omen zuten gure gizonok! Nahiz eta diputa-  
tu horri ikuturik edo halakorik egin ez (lasai igaro zuen gaua  
bere etxean) euskara hutsean mintzatu zirenez, antza denez  
Foru Aldundiko etxe sakratua kutsatu edo egin behar izan zu-  
ten, nonbait, hori zela eta auzitara deituak izan ziren-eta.

Udan zehar ere, zenbait tira-bira luze izan zen, han gau-  
-pasa egiten egondakoek deklarapenik erdaraz ez zutelako si-  
natu nahi. Baina legeak lege eta azkenean arazoa behingoan  
estaldu nahirik edo auzia zuritzea erabaki zuten. Euskal Herri  
osoan jakin genuen auzi horren berri eta iskanbilarik gerta-  
tuko zela eta hainbat jende bildu zen egun hartan Iruneako  
auzitegian.

Espero zenez, eta halakorik gutxitan gerta ohi denez, auzitegi gela jendez gainezka zegoen. Hain zen garrantzitsua, izan ere, auzi hori euskararen gerorako! Eta horra hor harrigarriena! Auzi plazako jokolari guztiak, epailariarengandik hasi eta idazkariarenganainokoak, guztiak euskaldunak! Ikustekoa faenebenetan! Nafarroak ez duela Euskal Herriarekin zer ikusirik uste dutenak (edo eta hala nahi luketenak) su eta ke garretan jarriak izango ziren, seguraski, egun horretan! Halakorik, gero?

Epailaria eta idazkaria euskaldunak izanik, auzia den dena, fiskal lotsatuaren galdera laburrak izan ezik, euskara hutsean egin zen. Fiskal hori, berori ere, oraindikan euskaldun ez bada ere, euskara ikasten ei dabil! Nork pentsa halakorik, non eta Irunean?

Inoiz ez dugu halako auzi raota berezirik ikusi gure inguru hauetan. Maliaikoak, agindutakoa bete behar, eta hara non hasten diren euskaraz, beraien arbaso zaharren hizkuntzari, epaitua izan behar zuen tokian bertan, zor zitzaion ohorea ematen! Hura bai izan zela, euskararen etsaiak beraiek, euskararentzat egin zuen zulora bertara buru-belarriz, eta hankaz gora, gainera, errotzea.

Bertan euskara hutsean mintzatu zirenak nafarrak izanik, euskarak Nafarroan oraindik bizirik irauten duela frogatu eta aldarrikatu dute lau haizetan! Nor ote, bada, auzitan? Euskara ala hain gorroto gaituzten espainatar jauntxo antieuskaldunok?

Izan du oihartzunik ugari auzi honek Euskal Herrian.

Ekintza hori dela eta batzu Iruneako plaza nagusian ondoko bertsoak harlandu handi batetan jartzea proposatzen dugu:

Irufiako Herrian	Erdaldunak asarre
hona notizia.	Nafarrok algara.
Oraindikan badela	Aitortuz lau haizetan
euskara bizia.	<i>^Euskaldunak gara»</i>
Gomutatzeke nauzu	Nafarroan oraindik
bertan ikusia.	itxaronik bada.
Nafartarren artean	Mintza bedi Irufian
euskaraz auzia.	gaurdanik euskara.

Donostia, 1981

Lehengo hariari jarraituz oraingoan ere, auzi.baten berriak eskeintzen dizkizut. Jasote hau Donostian gertatua duzu. Hemen mutil gazte bat izan dugu auzitan! Poliziek bideetako erdal izenak euskaldunizen edo ikusi eta ihes egiterakoan, emakume bat jo, lurrera bota eta zauriren bat egin ziolako edo<sub>3</sub> h'ain zuzeiL

Nahiz eta. berak istripu hori asmo txarrik gabe jazo zela aitortu, emakume hari kalteak egin zizkiola eta auzitegira agertu behar izan zuen gure gizonak! Hau ere, *Euskal Herrian euskaraz* taldekoa, nonbait. Hori zela eta jendetza galanta bildu zen auzi egunean. Euskaldunok, ohituta gaudelako edo, badugu larriunetan elkarrenganako lagunkidetasunik ugari!

Epailariak auziari hasera eman eta ber-bertan sortu zen iskanbila. Mutilak erdararik erabili nahi ez eta epailariak euskararik jakin ez! Nola elkar ulertu, bada? Hura komedial

Itzultzailea eskatu omen zuen epailariak, baina jende artean gehienak euskaldunak izan. arren inork laguntzarik eskeini nahi ez. Eta gauzak hola, auzia atzeratzea erabaki behar gure gizonak! •

Eta jendea irri eta mirri, algaraz, euskara hutsean epailariaren begi-beiarri aurrean bertan. Eta itzultzaierik ezin lortu! Ba dugu ikustekorik eta ikastekorik oraindik, antza, mundu barregarri honetan!

A! Azken berria! Epailaria harroputza izanik, auzi hau berberak zuritu nahi omen du eta jo eta ke hasi ei da euskara ikasten! Premiarik izango du aurrerantzean, nonbait! Gainera, behar bada, urrengorako euskaldun izango dugunez, hor arrapatuko dute bera ere gure mutilak euskaratu ezin izan zituen bideetako izenak euskaratzen!!!

Oraingo honek ete" merezi' ditu, zalantzarik gabe, bertso pare bat!:

\*. '•. :.

Donostia herritik  
heldu da berria.  
Bihar goizean dela  
famazko auzia.  
Goizeko ilunetan  
hasten da peria.  
Besterik ezin eta  
euskaraz guztia.

Non dakarten gazte bat  
ahoa loturik.  
Ez delako mintzaten  
euskaraz ez ezik  
Epailariak sutan  
tximistak alperrik.  
Gazteak ez, ostera,  
erdaraz mintzarik.

Lesaka, 1980/81

Aipatzera noakizim gertakizun hail ere nahiko entzute handikoa izan dugu. Oraindik ere badu oihartzunik ugari baztarretan! Hona non izan zuen sortarria!

Lesakako euskal Udalean euskaldun herritarrei kasu egiteko idazkari euskalduna behar eta Ian postu horretarako agiri-deia atera zuten, euskara jakitea nahitaezko baldintzen artean ezarriz.

Eta erabaki bezala, agiria zabaldu, erantzunak jaso, azterketak egin eta horra hor non hartzen duten euskaldun bat, herriko semea berau, Ian horretarako. Baina, ai ene! Sortu behar izan zen tximistarik indartsu baztarren batetan, halako trumoi hotsetan jartzeko Nafarroako Gobernadore (Birregea ote?) jauna. Oraingo honetan, aurea hartu dio, Del Burgo berberari ere!

Zer duk hau, mutilak? Euskara nahitaezkoztat, -non eta Nafarroan? Gobernadore edo Nafarroako Birregearen orroak Erreinuko errege zaharren hilobietako hezurrrak ere dar-daraka dantzan jarri behar izan zituen!

Espainiako Konstituzioa espatatzat hartu eta hor dugu burua makurtu nahi ez duen edozeini sarna eta behar den edozer abakitzeko prest! Ezin omen da, inon halako baldintzarik ezar Ian postu publikoetarako. Estatu barneko hizkuntza bakarra eta beharrezkoa gastelera ei da!

Baina ez ote dute Lesakatarrek euskaraz mintzatzeko be-

rezko eskubiderik? Edo eta orain arte bezala jarraitu beharko ote dugu euskaldunok, guk onartu gabeko Konstituzio sasi-demokratiko antieuskaldun baten izenean zanpaturik?

Aldizkari honetan bertan azaltzen nuenez, banuen nik lehen ere susmo txarrik Konstituzio horri buruz! Eta orain hor hasi zaigu Konstituzio sakratu hori makilaka euskararen kaltetan! Nolako hazia erein halako landarak sortu obi dira. Ez harritu, ba, irakurle, halakorik bazterretan entzutean! Ez da azkena izango seguraski! Begira, bestela, zer ari den pasatzen zenbait Udaletako erabakiekin! Garbi dago nork agintzen duen, gaurkoz gure inguruetan!

Baina, nahiz eta Gobernadore jauna sutan eta trumoi hotsetan bazterrak tximistez kixkaldu nahirik hasi eta jarraitu, auzia aurrera eramatekotan dira Lesakatarrak! Bapo, gizonak! Izango duzue bazterretan nork lagundu!

Gasteiz, 1980/81

Orain aipatzera noakizuen oraingo jazoera hau ere egunero ikusten ez den bezalakoa dugu. Berau, motorzale gazte biri gertatua.

Hor non datozten Gasteizko kaleetan zehar motorrean bi gazte. Eta, begira non galdierazten dituen, itxuraz inolazko arrazoirik gabe, polizia rnunizipal batek. Zarata larregi ateratzen ote? Gazteak izan eta susmo txarra hartu edo? Abiada biziagia, behar bada? Edo eta semaforo gorriren bati jaramonik egin ez edo? Batek "daki!

Dena dela, gelditu egin behar, eta han ditugu gure gazteok martxa lotu eta espaloi ertzean. Eta munizipala hurreratzean euskaraz agurtzen dute. Baina, ikustekorik baztarretan! Berau, bat-batean, sutan jartzen zaie. Erlabioak edo ezten zorrotzez zirikatu balu bezala!

Gazteon paperak eta eskatu eta ikusi ondoren, inolazko bidegabekeriarik aurkitu ez eta hor non jartzen dien multa, iraindu egin dutela ezarri. Baina nork nor iraindu? Iraina ote euskaraz agurtzea? Ala eskupekoren bat espero?

Bestalde, ez zen lotan egon gure munizipal hori, laster hel-  
du baitzitzaien gure gazteei Udaletik multa ordaintzen joateko  
deia!

Baina, oraingo honetan, gure polizia munizipalak hezurrari  
egin zion haginka, eta jakina, haginak eta hortzak, denak pux-  
katu! Horra hor non agertzen zaigun izen eta guzti salatua  
urrengo batetan egunkarietan!

Baina nola hori? Gazteek, susmo txarra harturik, paparreko  
polizia txapako zenbakia hartu omen zioten eta gero galdetuz,  
nor zen izen eta deitura ta guzti jakin! Ez zuen itxarongo bere  
joko zikin hori salatua izango zenik, seguru asko! Behar bada,  
halakoek egin ohi dutenez, kopa pare bat hartuko zituen lagun  
artean bere ekintza goralduz! Orain lotsaz beterik kaka larri-  
tan ei dabil. Izango dute Gasteiztarrek hura igaroten den kale-  
etako hatsa kentzeko garbikarien premiarik!

Seguraski, bestalde, nahiko zeregin izango du Gasteiz Udale-  
ko alkate jaunak ere, funtzionari frankotar antieuskaldun horiek  
bide zuzenera ekartzen.

Jokabide ederra irakatsi digute gazte ausarta horiek! Zuk  
eta nik honela jokatuko bagenu, ez litzateke bazterretan hala-  
korik gertatuko!

Bilbo, 1980/81

Orain kontatzera noakizun gertakizun hau, Bilboko Udalean  
atministrarientzat Gabonetan egin berri diren azterketetan ja-  
zoa dugu. Honetan ere badugu gerorako zer ikasi! Nola jokatu  
ikasteko izan dezazuela Udaletako zinegotziok!

Direla urte bete t-erdi, ezdabaida gogorak (beti bezala  
PSOE tarteko zela) izan ondoren, Udal honetako zinegotziek  
euskarari aurrerantzean lanoostuetarako azterketetan nolabai-  
teko balioa eman behar zitzaiola erabaki zuten. Hori zela eta,  
aurrerantzean lan postuak eskuratzerakoan euskara jakitea kon-  
tutan hartua izango zen.

Eta hala, Udalak atministrari lanpostu iraunkorrek eman  
nahian horra non argitaratzen dituen horretarako baldintzak

Bizkaiko «Boletfn Oficial» delakoan. Bertan, hiru postutarako euskara nahitaezkotzat jotzeaz aparte, beste hamabi postuak eskuratzerakoan ere, aurkeztutakoek puntuaketa berdina baldin bazuten, euskara kontutan zela egingo zela lanpostu bana-keta esaten zen. Eta hori justifikatzeko, euskarak gaur egun Euskal Herrian duen garrantzia eta beste halako mila arrazoi bitxi aipatzen ziren. Baina bost ajola idazkari hari euskarak! Horra hor bere tranpa!

Badela, bai, maltzurrik ugari gure inguruotan! Halakoen ondoan ifiusenti batzu baino ez gara euskaldunok! Agiri hori egin zuen frankotar idazkari antieuskaldunak, ondo baino hobeto zekien, jakin ere, halako azterketetan (inoiz, uste gabean, halakorik jazo baldin bada ere) oso zaila izaten dela nota berdinek izatea! Hori dela eta, baldintza hori ezartzean zuhur jokatatu zuen, zinegotzien aurrean ongi gelditurik, euskararen kaltetan.

Horra hor, ba, legea poliki erabilirik, eta itxura guztiak zaindurik, euskara praktikoki ezer hutsean utzia! Euskara aipatu eta goraldu, bai, itxuretan baina inongo baliorik eraan gabe. Non ote adarra jotze handiagorik? Eta jakina, aztertze egunean aurkeztutakoen artean euskaldunik baldin bazen ere, baldintzak baldintza zirenez, ezin izan zen euskarari baliorik eman. Aurrez idazkari maltzurrak suposatzen zuen bezala ez zen nota berdinekorik izan!

Eta gero, gogorrekiak omen gara gure kexak eta protestak egiterakoan. Sentikorregiak eta minberatsuak gabela entzuten ez dugunean!

... Badugu, ba, zer ikasi etsai amorratu hauengandik! Ez dugu bestelako jokorik bizirik iraun nahi baldin badugu. Esaera bitxi guztiak aide batetara jaurki eta benetako balioa eman behar diogu euskarari. Halako postuetarako puntuaketa zehatzak (% 10, % 15, % 20, % 25, edo nahi dena) jartzen ez ditugun artean ez dugu ezer egingo. Gehienez, guk hitzak eta besteek bitsak!

Badakizue, ba, Udaletako zinegotziok. Kontuz frankotar garaieretako idazkari maltzurrekin, legeak heuren onetan erabiltzen lar ohituak ditugu eta! Bada oraindik gure artean artilez jantzitako otsorik aske!



. Urte honetan oso sarri entzun izan dugu Araba erdian dugun Konterri.hau ere. Nahiz eta Araba erdian izan Lurralde hau, ez dakit zeren arrazoiz (edo eta larregi dakigu), aspaldidanik Burgoseko Probintziako atal edo dugu, legez behintzat. Baina inolaz ere ez eguneroko harremanak Burgosekoekin izan dituelako, historian zeharko zerbaitegaitik Burgoseko jauntxo- etxe bati loturik agertzen zaigulako baino.

Treminotarrek, urteetan arazoz beterik bizi izan. dira. Legez, atministralgo harremanetarako zenbait kasutan Burgoseraino joan bearrean aurkitu dira. Eta Burgosekoei hori komeni, bertako diru-txanponak eta eskuratzeko! Laguntza ematerakoan, ostera, urri eta arrotz Burgostik urruti zirela eta. Praktikoki bertan bera utziak izan dira.

Hori dela eta, Treminotarrek, bekaizkeriaz begiratu izan die inguruetakoko herriei Arabako Fbru Aldunditik jazo izan dituzten mila eratako laguntza ugariak ikusirik. Burgosetik, ostera, ezer gutxi jaso eta asko eskatu!

Ez da harritzekoa, ba, orain Euskal Herriari lotzeko bidea eskeini dietenean Konstituzioak aukera hori aprobetxatzea. Eta hemengo gizonok ez ditugu politikoki sospetxagarriak, UCD-ren inguruan aurkeztu baitziren hauteskundeetara.

Eta hemen sortzen dira eskanbilak! Nahiz eta Treminoko Udalekoek Arabari lotzeko gogoia udal erabaki bidez adierazi, Burgoseko jauntxoek halakorik onartu nahi ez. Eta hor ditugu auzitan Udal Batzarreko erabaki hori deseustatu nahian horretarako direnak eta ezdirenak eginik!

Konstituzioaren aldeko amorratu ziren horiek ez dute orain, inolaz ere, Treminotarrek Konstituzioaren izenean erabaki dutenik onartu nahi. Konstituzio hori Euskal Herriari nahitaezean ezarri bai baina ondorio onik baldin badakar orduan ukatu! Bapo ez da?

Arazoak oraindik auzitan diardu. Behar bada urteetako kontua izango dugu. Beste behin Tremifioko herriak zapalkuntza hau jasan beharko du. Eta gero Espainiako Gortetan onartu behar gurari hori. Batek daki zer erabakiko duten antieuskaldun horiek!

Ezin lerro labur hauetan gure inguruetako gertakizun guztiak bildu eta garrantzitsuenak aipatzea nahi izan dut. Hala ere ezin salaturik gabe utzi, Euskararen gerorako halako eragipen neurtezina duen Euskal Herriko Unibertsitatearen jokera.

Egia esan, azken bi urte hauetan eman dira bai urrats batzu alor honetan batez ere Magistergo Eskoletan. Hala ere, egin dena besterik ezean eta ahalik eta esku itxienez jokatuz eginga izan dela esatera ausartuko nintzateke. Behar bada Inguruko Erakunde Publiko berrien aurrean itxurak gordetzeko edo eta ikasle-irakasleen presioz.

Nere eritziz, *Euskal Herriko Unibertsitatea* delako honetan ez zaio benetako tokirik egin. oraindik, Fakultate bakarren baten izan ezik, euskarari, ez eta euskal kulturari. Hona hemen hori frogatzeko gertakizun batzuen berri:

a) *Euskarako klaseak kentzea.* Azken bi urte hauetan, aide batetik halako urrats batzu eman badira ere. Unibertsitateko nolitika orokorra euskara baztertzerakoa izan da. Lehendik Bilboko Unibertsitatean ematen ziren euskarako eskolak (Behar bada zenbait Ikastetxetan guztiz ongi eratugabe) kendu egin dira. Euskararen Plangintzarako Komisio batek ikerketa teknikoa egin ondoren, euskara karreretako azken urte bietan ezartzeko edo zen baina, ez da ezer egin. Azaroan bertan Unibertsitateko Gobernu Batzarrak zenbait Fakultatetako eskabideei ezezkoa eman zien. Zenbait Fakultateko zuzendariek ere, euskararen aldeko plangintza inoiz bertako Klaustrora eraman ez eta ez entzun egin dute.

Hala ere denok dakigu, jakin ere nahiko ongi, noren erruz aurkitzen diren gure gaztesk euskararik ez jakinean eta baita ere zer nolako eragozpenak eta oztopoak izan zituzten euskarako eskolak lehen ere Unibertsitatean (zenbait urtetan irakasleak ordaindu gabe, eta ordaintzen hasi zenean ere ordaintzeko urte bete beranduago zirela; eskola ordurik txarretan, inolazko materialik gabe,...)

Eta gero hor gabiltza estu eta larri Institutoetarako eta

irakasle lizentziatu euskaldunen bila, irakasle horiek gertatu behar diren tokietan erremediorik jartzen ez dela. Alor honetan ezer egiten ez bada, gure beharritan konpondu beharrean ugaritu egingo zaizkigu.

Gainera, beraien ikasketa garaietan euskara ikasteko aukerarik izan ez dutenek ez ote dute horretarako eskubiderik? Edo eta euskara, aurrerantzean ere, beste zenbaitek bezala, aparte beraiek heuren boltsikotik ordaindurik ikasi beharko ote?

Euskararen irakaskintza hori seriozki ezarri behar dela? Bai orixe! Zenbat eta zuzenago, hobeto! Aukerak emateaz batera erantzukizuna ere esijitu beharko da. Baina lehen urteetatik euskara ikasteko edo eta dakitenek aberasteko aukerarik ezartzen ez bada, nekez jar ahal izango dira gero, azken urteetan, hiztegi teknikoak irakasteko eskolak! Nortzuei irakatsiko zaie, euskararik ez dakitenei edo eta alfabetatu gabeei? Ez ote da euskararik inoiz ez jartzeko aitzakia?

Ni ez nago, inolaz ere, ez Unibertsitate zientifiko baten aurka. Honetan zenbait eta goragoko maila lortu hainbat eta hobe! Baina, bide batez, zergaitik ez euskaldundu zientifiko guztiok edo, gutxienez, nahi dutenek? Zergaitik ez eman euskara ikasteko benetako aukera karrera egiterakoan? Nola egin-go dugu, bestela, Euskal Herria euskaldun? Ala euskara atministrari eta behe mailako jendearentzat ote?

Unibertsitateetan lehenago ere irakatsi izan dira hizkuntzak finkak ere bi hizkuntza moderno, euskararik ez zen orduan kontutan hartzen, ikasi beharra izan nuen) eta egin ere bai beste zenbait aktibitate betegarri: kirolak, irteerak, tailer-lanak. abestaldeak, eta abar...

Euskarak ez ote du halakoren artean tokirik merezi? Edo eta gure Herriaren gerorako garrantzi handiagoa ote dute halakoei, euskaldun izateak baino? Jakina, halako aktibitateek, nolabait Unibertsitateari, kanpora begira, entzutea ekartzen diote eta euskara ikasteak, ostera, halako zaratarik eta ispilurik ez! Edo eta bertako agintariek oraindik gorrotoa euskarari? Ala Euskal Herriko Unibertsitate hau behin batetan Euskal-Unibertsitate bihurtuko den bildurra? .

b) *Magistergo Eskoletan ere oraindik oztopoak.* Euskal Herriko Unibertsitate horrek ez duela oraindik euskararen aldeko benetako aukerarik egin, beste zenbait ekintzetan ere agertzen zaigu. Hala nola, Bilbon, Magistergo Eskolan. Nahiz eta urrats batzu emanak izan, eta gainera gehienak azken bi urte hauetan, oraindik hutsune nabarmenak agiri zaizkigu:

- Oraindik ez da ez Euskarako Katedrarik ez eta behar den beste Agregaturiarik. Eta honela, euskarako irakasleak lehenengo mailako kategoriakoak izan behar. Eta jakina, maila horri dagokionez ordainduak!
- Eskola hauetarako Plangintza egiterakoan klaseetako ikasleen kopuruaren gehienengoa hogetabost izango zela onartu izan arren, 30/37ko taldeak ditugu. Hala ezin da hizkuntza behar bezala irakatsi ez eta plangintza zehatzik bete. Bestalde, zenbait eragozpen aurkitzen ditugu, toki eta tresneria aldetik ere. Oraindik ez dugu hizkuntza irakasteko laborategirik eta abar.
- ^~ Hirugarren urteko ikasle euskaldunek, nahiz eta praktikak ikastoletan egin edo eta *idoneo* lanetan ibili (beraz, heuren lan osoa euskaraz egin) programaketak erdaraz egitera beharturik aurkitzen dira, lan hori zuzentzeko nahiko irakasle euskaldunik ez dugulako. Ministeritzak ez omen du onartu irakasle gehiagorik kontratatzea. Eta hori, guk kurtsoaren haseran beharrian hori argi eta garbi azaldua izan genuen arren.

Bestalde, Unibertsitatean, euskararen aurka dagoenik ere aurkitzen da. Oraintsu bertan iskanbila bizia eta galanta izan genuen Magistergo Eskolako euskaldun irakasleok irakasleen bileretan euskaraz egiten hasi ginelako. Nahiz eta guk esandakoak itzuliko genituela esan, ezin zuten halakorik irentsi. Itxuraenez janari gozoagoetara ohituak dituzte ezta! Ezin, ba, urrutira heldu euskararik entzun ere nahi ez duten horiekin!

Irakasle berriak kontratatzea izan zenean ere burruka gogorra sortu zen, euskara jakiteari balioa eman behar zitzaioela eta. Azkenean, ikasleek presioa eginik % 25ko puntuaketa ematea erabaki zen.

Halako jokerak izanik, euskaidunek izango pte dute inoiz karrera euskaraz egiteko aukerarik? Edo ez ote dugu halakorik eskatzeko eskubiderik?

Nere eritziz, Unibertsitate barneko zenbaitek, beraien orain arteko «statusa» aldatu egingo den bildurra edo du. Beharko liraketan beste euskal irakasle sartu ezker, bileretako indar-erlazioak aldatzen dira, eta jakina, agintzen eta nahi dutena egiten ohituratuek ez dute halakorik nahi.

Ondorioak :

Beste zenbait gertakizun ere gogora ditzakegu bakoitzak. Nahiz eta hainbat alorretan euskararen egoera aldatua izan, oraindik baztarturik agiri zaigu inguru gehienetan.

Agiriko Batzar eta Bileretan, kontzientzia estaltzeko edo zertxoren bat erabiltzen da, bai, euskara baina zenbateraino? Orain ez dizute, ez, *hable Ud. cristiano* edo beste halakorik esango, baina *astirik ez dagoela, erdara denak ulertzen dutela, itzultzen ibiltzea kaikukeria dela*, eta... beste zenbait sasi-arrazoiz erdaraz mintzatzera behartuko zaitue. Itzulita ere ez da onartze zenbait tokitan euskaraz egitea! Zer ote litzateke guk, erdaraz mintzatzeko zaiguna euskaratzea eskatuko bagenu? Ez ote dugu geure Herrian bertan horretarako eskubiderik?

Aspalditxo honetan, hor ditugu egunkarietan eta zenbait ahots gogor euskararen baztartzeko sistematiko hori salatzen. Gure hizkuntza, ito nahirik edo, gizarteko harremanetatik baztatu gura da. Euskarak zerbait salatzen die, nahiz hemen jaiok nahiz kanpotik etorriak izan, ez dakitenei: *Euskaldun izateko euskaradun izan behar dutela*.

Jakina, horren aurrean, norbera lotsaturik ez gelditzeko besteak isileraztea komeni! Baina besterik beharko dute gure gizonok, hemendik, ikusi dugunez, edonon eta edonorren aurrean euskara erabiltzeko halako jende ausartarik dugun artean.

Ikas dezagula bidea. eta gero adoretzu jarrai!

*Patxi Uribarren*